

DATOZENAK

Urtarrilaren 29tik 31ra bitartean, "Zinea eta emakumea" egitasmoan, hiru film emango dira

Lugaritz kultur etxean. Lehen-dabiziko emanaldia Marie Mandyren "Filmer le désir. Voyage a travers le cinéma des femmes" izango da.

Agnes Varda-ren "Les Glaneurs et la Glaneuse" izango da bigarren proiektzioa. Azkenik, Yue-Quing Yang txinatarraren "Un shuu. A Hidden Language of women in China" titulupeko filmarekin zikloa amaituko da.



Onddo Larratxon

Kontzertu polita egingo da hilaren 12an, larunbata, Larratxoko kultur etxean. Oholtza gainean Onddo ariko da, iazko azaroan Gaztelupeko Hotsak disketearekin lehen diskoa kaleratu zuen talde nafarra. Pop doinuetan murgilduko gaituen kontzertu hau iluntzean hasiko da.

ERAKUSKETAK

• "Alentejo-Portugal". Jose Maria Ballesterren argazkiak ikusgai. Gipuzkoako Argazkilaritza elkartearen (San Juan 17), hilaren 31ra arte.

• "Eguberrietako talde erakusketa". Echeverria galerian (Zubieta 18-20), hilaren 18ra arte.

• "Iba perdido el ojo". Santos Montesaren argazkiak ikusgai. La Roca Pothogalerian (Arroka 3), hilaren 31ra arte.

• "Kontrasteak". Tato Otegi eta Txomin Riberraren itsaspeko argazkiak. Aquariumean, hilaren 31ra arte.

• Idurre Ugalderearen olioak eta akrilikoak ikusgai. Larrotxene kultur etxean (Intxaurren 57), hilaren 25era arte.

• "Esencias". Usaimenarekin zerikusia duen pintura



erakusketa. Artearen Kutxagunean (Kursaal eraikina), hilaren 31ra arte.